

ZENBAIT ESPEZIALITATE IREKITA, BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOAN

Eskabideak aurkezteko epea: irailaren 13tik 19ra arte

245/2023 EBAZPENA, irailaren 12koa, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariak emana. Horren bidez, prozeduren deialdia egiten da zenbait espezialitate eta hizkuntzatan berariazko zerrendak irekitzeko eta irailaren 29ko 31/2020 Errege Lege-dekretua aplikatuz izangaien zerrendak osatzeko, Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuko irakasle lanpostuak aldi baterako betetze aldera.

GAZTELANIAZ irakatsi beharreko espezialitateak

590 - Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa:

- Informatika
- Informatika, ingelesezko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Instalazio elektroteknikoak
- Instalazio elektroteknikoak, ingelesezko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Esku-hartze soziokomunitarioa, ingelesezko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Administrazio kudeaketako prozesuak, ingelesezko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Sistema elektronikoak
- Sistema elektronikoak, ingelesezko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Sistema elektrotekniko eta automatikoak
- Sistema elektrotekniko eta automatikoak, ingelesezko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Sistema eta aplikazio informatikoak
- Sistema eta aplikazio informatikoak, ingelesezko C1 hizkuntza-eskakizunarekin

EUSKARAZ irakatsi beharreko espezialitateak (betekizuna: EGA edo baliokidea)

590 - Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa

- Fisika eta kimika
- Fisika eta kimika, ingelesezko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Frantsesa
- Ingelesa
- Ingelesa, alemanezko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Musika
- Musika, ingelesezko C1 hizkuntza-eskakizunarekin
- Teknologia
- Teknologia, ingelesezko C1 hizkuntza-eskakizunarekin

Eskabideak eta agiriak **bakarrrik modu telematikoan** aurkeztu behar dira, honako webgune honetan, **TRAMITAZIOA ataleko “Tramitatu”** botoia sakatuta:

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/Apertura-de-listas-especificas-mediante-incorporacion-periodica-de-aspirantes-en-determinadas-especialidades-e-idiomas-1>

Hor azaltzen diren urratsak bete behar dira, eta agiri hauek **SOILIK** erantsi:

- **Indarrean dagoen NANaren** edo nortasun-agiri baliokidearen kopia eskaneatua, bi aldeetatik egina eta dokumentu bakar batean aurkeztua
- Espezialitaterako **eskatzen den** indarreko **tituluaren** kopia eskaneatua, bi aldeena, eta dokumentu bakar batean aurkeztua. Fitxategi bakarra aurkeztu beharko da titulu bakoitzeko, hala xedatzen baita Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskineko 1. puntuan
- Zerrendan sartzeko betebeharrak modura alegatu den tituluaren indarreko **expediente akademiko** ofizial osoa, ziklo guztiei dagokiena, zeinetan agertuko baita batez besteko nota, dokumentu bakar batean aurkeztua.
- Euskaraz irakatsi beharreko espezialitateetarako: **EGA** titulu edo baliokide indardunaren kopia eskaneatua, dokumentu bakar batean aurkeztua.
- **Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoko** masterra edo baliokidea, indarra duena, dokumentu bakar batean aurkeztua, Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskineko 2. puntuan xedatutakoarekin bat.

Gaztelaniara edo euskarara itzuli beharko dira atzerriko hizkuntza batean idatzitako agiriak edo beste autonomia erkidego bateko hizkuntza ofizial berekian idatzitakoak. Zinpeko itzultzaileek egin beharko dituzte itzulpen horiek, eta agiriarekin batera aurkeztu beharko dira.